



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko abenduaren 10a

137. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Tributu Neurriei buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arruntan bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako. Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek eta Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu dute (7. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Gipuzkoako Aldundiak Nafarroa Euskal Herriarekin identifikatzen duten afixak erretira ditzan Nafarroako Gobernuak egindako zuzemenei buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (9. or.).
- Galdera, kirol federazioei diru-laguntzak ematea arautzen duen Foru Aginduari buruzkoa. Xabier Lasa Gorraiz jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Taxoareko zelaiak kirol jardueretarako lagatzeari buruzkoa eta jakitekoa aintzat hartuko ote den Nafarroako Errugbi Federazioak zelai horietako bat erabiltzeko egindako eskaera. Txema Mauleón Echeverría jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren jarrerari buruzkoa, presoan dispertsioari eta beraien eskubideen urraketari dagokienez. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (12. or.).
- Galdera, jakitekoa zer neurri abiaraziko dituen Nafarroako Gobernuak pobrezia energetikoko kasu zehatzetan aitzinean. Samuel Caro Sádaba jaunak egin du (12. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Lantaldea, parlamentu-taldeek ustelkeriaren aurka borrokatzeko aurkeztu dituzten proposamenak lantzeko eta ustelkeria kasuistika desberdinak prebenitzeko eta politikoki zigortzeko neurri eraginkorrak aztertzeko. Barne-funtzionamendurako arauak (13. or.).

- Lantaldea, aztertzea eta egiaztatzea nazioko nahiz nazioarteko adopzio-politikan erabili diren eta erabiltzen ari diren dinamikak, bai eta esparru horretako irizpideak eta jarduketak ere, eta adopzioei buruzko lege- nahiz arau-garapenean sakontzea. Gizarte Politiketako Batzardeak onetsia (14. or.).
- Lantaldea, aztertzea eta egiaztatzea nazioko nahiz nazioarteko adopzio-politikan erabili diren eta erabiltzen ari diren dinamikak, bai eta esparru horretako irizpideak eta jarduketak ere, eta adopzioei buruzko lege- nahiz arau-garapenean sakontzea. Osaerari eta eratzeari buruzko arauak (14. or.).
- Ezgaitasunaren alorreko Politika Integralei buruzko Batzarde Berezia. Batzardea sortzea eta bere funtzio-namendurako arauak (15. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Tributu Neurriei buruzko Foru Lege proiektua.**

### *AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Tributu Neurriei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2014ko azaroaren 5eko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **1. ZUZENKETA**

#### **MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA**

#### **FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Lege proiektuko lehenengo artikuluko bat atala aldatzeko zuzenketa; testu hau izanen du:

«Bat. 29.4. artikulua.

“4. Betiere, administrazio-ekintza erantzuleei deribatzen zaienean zerga-zorraren ordainketa eskatze aldera, administrazio-egintza bat beharko da, zeinean, interesdunari entzutea eman ondoren, erantzukizuna eta bere mota deklaratu eta haren zenbaterainokoa zein den zehaztuko baita. Erantzukizun-deklarazioaren proposamena interesdunari helaraziko zaie, eta horiek hogeita hamar eguneko epea izanen dute alegazioak aurkezteko. Epe hori iraganda, alegazioak aurkezteari uko egin baldin diote soilik, proposamen hori erantzukizuna deribatzen administrazio-egintza bilakatuko da.

Deklarazio hori baino lehen, administrazio eskudunak foru lege honetako 118. artikuluko kautelazko neurriak hartu ahaliko ditu eta ikerketa-jarduketak egin ahaliko ditu foru lege honetako 101. eta 102. artikuluetan aurreikusitako ahalmen eta baliabideekin.

Egintza hori jakinaraziko zaie, likidazioaren funtsezko elementuak adierazita, erregelamendu

bidez finkatzen diren moduan eta eraginekin, eta une horretatik zordun nagusiaren eskubide guztiak emanen zaizkie.

Erantzukizunaren deklarazioari buruzko erabakiaren kontrako erreklamazio edo errekurtsoren bidez aurkatu ahal izanen dira, zor-eskaera egiteko bide ematen duen egintzaz gainera, egintza horretako likidazioak ere. Errekurtso edo erreklamazio horien ondorioz, ezin izanen dira berrikusi beste zergadun batzuentzat irmo bilakatu diren likidazioak; berrikusi ahaliko da errekurtsioa edo erreklamazioa aurkeztu duen erantzulearen beharkizunaren zenbatekoa soilik.

Dena dela, 30.4 artikuluan ezarritako kasuetan, ezin izanen dira oinarri horrek hartzen dituen likidazioak aurkatu, erantzukizunaren zenbateko osoa baizik. Orobat, aipatu artikuluan aurreikusitako kasuetan, ez da 70.6 artikuluan xedatutakoa aplikatuko, ateratzen den zenbateko deribatua zorretatik nahiz tributu zehapenetatik etorri.”

Zioak: foru lege proiektuko zioen azalpenean jasotakoaren arabera, aldaketaren xedea da tramitazio laburtua erregulatzea erantzukizun-deribaziorako, gaur egun zerga-likidaziorako proposamena arautzen duen ereduari jarraituz; bada, gure ustez –horregatik eusten zaio egungo testuari (honakoak biltzen ditu: lehenengo lerrokadan ukitu garrantzitsu bat egin da; bigarren lerrokada bat gehitu da; eta hirugarren lerrokadan eraginak gehitu dira), apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legeak eragindako aldaketaren ondoren–, tramitazio laburtuak kalte egin diezaietke erantzukizuna deribatzen ekintzak uki litzakeen pertsonari. Bestalde, harrigarri gertatzen da arau hori berriz aldatzea, kontuan izanda haren lerrokatetako batzuei testu berria eman zitzaizela apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legearen bidez.

Zioen azalpenaren abiapuntua da erantzuleari (hobe izanen da “ustezko erantzuleari”) eta erantzukizunaren deklarazio-proposamena esatea deribazio-egintza jakinarazten zaiola, eta hori

oinarrizko akats bat da, zeren eta hori behin beti-koa ez den bitartean, ez baitu “zergadun” izaerarik hartzen, baizik eta soilik “administrazio-prozedura bateko interesdun” izaera; edo, beste hitz batzuekin esanda, lehenengo jakinarazten zaio gero alda daitekeen proposamen bat. Are gehiago, partzialki bat egiten badugu ere Nafarroako Gobernuaren nahiarekin, zerga-erantzukizuneko deklarazioen kudeaketa arintzeari dagokionez, hori ezin da gauzatu zergadunen eskubide eta bermeen kaltetan. Alabaina, bi kasu bereizi behar dira, proiektuak egiten duen bezala: alde batetik, alegazioak aurkezteari uko egitea –eta kasu horretan badago interesdunaren berriazko borondate bat, Nafarroako Zerga Ogasunaren proposamenari aurka ez egitekoa– eta, horrenbestez, irudi lezake gomendagarri dela hasierako proposamena behin betiko bihurtzea, ukoaren unetik aurrera; beste aldetik, foru lege proiektuak ezarritako hamabost eguneko epea (guk hogeita hamar egunera luzatu duguna) amaitu eta alegaziorik aurkeztu ez denean, ez dago horri buruzko inongo adierazpenik; denboraren iragatea besterik ez dago. Eta erantzukizun laburtu edo sinpletuaren deklarazio proposamenak berarekin ekar dezake jada erantzule deklaratu denari eragoztekoa zenbait eskubidez baliatzea, egintza berekien doktrinaren indarrez, zeina aplikatzekoa baita bai administrazio bidean, bai auzietako bidean.

Azkeneko bi ohar, bata izaera materialekoa eta bestea izaera formalekoa. Lehenengoari dagokionez, foru lege proiektuak hitzez hitz dio prozedura hau aplikatuko dela espedienteak hasteko garaian organo eskudunaren esku daudenean erantzukizunaren deribazio-egintzarako proposamena egitea bideratzen duten elementu guztiak; horrek halako subjektibotasun dosi batzuk sartzen ditu non, hitzez hitz, abiapuntuko auresuposamendu faktikoa faltsua, zehaztasun gabea edo osatu gabea izanen balitz ere, administrazio-egintzek duten legezkotasun-presuntzioa dela eta, interesduna erantzule bihurtu bailiteke, oso-oso laburra den iraungipen epe bat iragate hutsaren ondorioz (hori dela-eta proposatu dugu hogeita hamar egunera luzatzea). Eragozpen formalari dagokionez, ez dugu uste beharrezkoa denik hain modu xehean aldatzea Tributuari buruzko Foru Lege Orokorra, erantzukizun-deklaraziorako prozedura laburtu edo sinpletua araupetzeko; izan ere, nahikoa izanen litzateke Nafarroako Diru-bilketa Erregelamendua onesten duen uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuko 12. artikulua aldatzea; betiere, noski, aldaketaren ildoak ez bada balizko zergadunen eskubideak sakrifikatzea zerga-kudeaketa aritzearen mesedetan.

Azkenik, testu indardunean bigarren lerrokada bat gehitzen da, zeinak aukera ematen baitu –ez du derrigortzen– Nafarroako Zerga Ogasunak Tributuari buruzko Foru Legean bertan aurreikusitako kautelazko neurriak hartzeko eta arau horretan aurreikusitako ikerketa-jarduerak ere egiteko, honako funtsezko xede honekin: saihestea ezen kasu batzuetan eta arrazoizko arrastoak daudenean, balizko erantzuleak ondasunen eta eskubideen gain xedatu ahal izatea Ogasun Publikoak formalki haiek tratatu edo bahitu ahal izen baino lehen. Oinarrizko neurri bat da zerga-iruzurraren aurka egiteko, eta ez du azalpen gehiagoren beharrik, baina bai Nafarroako Zerga Ogasunaren motibazio bat, hura erabakitzen bada; interesdunak, noski, motibazio horren aurkako errekurtsioa aurkeztu ahal du.

## 2. ZUZENKETA

### MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA

#### FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Proiektuko lehenengo artikuluko hiru atalaren helburua aldatzeko zuzenketa. Hona testua, hitzez hitz:

“Hiru. Hogeita bigarren xedapen iragankorra gehitzea.”

Zioak: Baldin eta foru lege proiektuaren asmoa bada ordainketen geroratzeak eta zatikatzeak 2015erako arautzea, logikoa izanen litzateke hori egitea xedapen iragankor baten bidez, ez xedapen gehigarri baten bidez. Zuzenketa guztiz teknikoa da eta ez dakar inongo aldaketarik aipatutako xedapenaren testuan.

## 3. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluko lau atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroari, zuzenbidez, zerga arloko eskumen osoak dagozkio eta, horrenbestez, ez da bidezkoa atal hori aldatzea.

**4. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

Hirugarren artikuluko (Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Foru Legea) hiru atala (51. artikuluko 1. tarifa, 8. idatz-zatia gehitzea) kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurkeztutako foru lege proiektuan zioak eta justifikazioa falta dira.

Tasa justifikatu gabe dago, zeren eta Nafarroako eskuratutako eskumen osoa baita, Foruzaingoa garatzen duena eta herritarrek beren zergekin jada ordaintzen duten zerbitzua zergapetu nahi duena. Ez dirudi logikoa denik, horrenbestez, hori aplikatzea, zeren eta suposatuko bailuke Foruzaingoa alokatzea.

**5. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Foru lege proiektuko hirugarren artikuluko hamalau ataleko "4. tarifa. Tarifa berria sortzea, 7.a" aldatzeko zuzenketa.

«Hamalau. 146. artikulua. Tarifak aldatu, sortu eta kentzea.

"4. tarifa: 7. eta 8. tarifa berriak gehitzea.

7. Batasunaren barrenean animalia bizien salerosketan aritzen diren agenteen erregistroa eta baimena behar duten animalia biziak garraiatzen dituzten ibilgailuen erregistroa: 25,00 euro.

8. Esne gordinaren laginak hartzea eta haren kalitatea analizatzea: 75,00 euro».

Zioak: Foru lege proiektuko hirugarren artikuluko hamalau atalean aldatzen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako Tasa eta Prezio Publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legeko 146. artikulua.

Aipatutako 146. artikulua aldaketan horren esparruan, artikulua horretako 4. tarifa aldatzen da, eta haren baitan 7. tarifa berria sortzen da.

Bada, zuzenketa datza 4. tarifa horren barrenean sortzean, arestian aipatutako 7. tarifaz gainera, 8. tarifa berria, esnearen kalitateari buruzko laginak hartzeari eta analisiak egiteari buruzkoa.

Egiazki, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioa Departamentuko Abeltzaintza

Zerbitzuak proposatuta, tasa berri bat sortzen da, 8. tarifa, zeinaren funtsa honakoa baita: Q letran (esne gordinaren kalitateari buruzko analisiak kontrolatzen dituen programa nazionala) alertak antzematen direnean, Abeltzaintza Zerbitzuko langileek berariazko kontrol bat egiten dute esnebehi, -ardi edo -ahuntzen kasuko ustiatzean, esnearen kalitatearen araudia betetzen den edo inhibizailerik dagoen egiaztatze aldera. Kontrolan, lagin bat hartuko da eta hondakinen analisia egiten da bertan. Jarduketa hori ez dago esnearen kalitatearen ohiko kontrolaren barruan, baizik eta abeltzaintza-ustiatze baten gaineko kontrol-jarduera berezi baten barruan, ekoiztutako esne gordinaren kalitatearen ez-betetze batetik heldutakoa eta nahitaezko esne-analisiaren aurkitutakoa.

Orain proposatzen den tasa horrek estaltzen du teknikaria abeltzaintza-ustiatze joateak dakartzan gastuen zati bat, laginak hartzea, analisia "in situ" egitea eta laborategi ofizialean egindako analisia.

Tasaren zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartu da zenbat denbora behar duten teknikariek abeltzaintza-ustiatze joan eta lagina hartzeko, eta langinaren analisiaren kostua.

**6. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

Hirugarren artikuluko (Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Foru Legea) hamasei ataleko (XI. tituluan IX. kapitulua gehitzea) 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

"4. Tarifak.

Tarifa, oro har, 400 eurokoa izanen da.

Halere, tarifa 250 eurokoa izanen da enpresa-txiki eta ertainen kasuan, eta 200 eurokoa, berriz, mikroenpresen (Batzordearen 2003/361/EE Gomendioko definizioaren arabera) eta garapenean dauden herrialdeetako operadoreen kasuan.

Zioak: Tasaren aplikazioan bereizkuntza egitea: enpresa ertainak (50 langile bitarteko plantillak dituzten sozietateak) eta mikroenpresak (10 langile bitartekoak). Horri dagokionez, lehentasuna ematen zaie tamaina txikiagoko enpresei.

Bereizkuntza hori jada beste erregio batzuetan aplikatua da: Aragoi (200 euro mikroenpresei eta 350 euro enpresa ertainei), Madril (200 eta 350 euro), Murtzia (204 eta 306 euro) edo Galizia (250 eta 450 euro).

**7. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA****FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Laugarren artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Horren bidez proposatzen da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 27.1.a) artikulua aldatzea.

“Laugarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

27.1. artikulua.

a) Eskualdatutako ondare-elementuen erosketara-prezioa edo produkzio-kostua eta zergen ikuspuntutik kengarriak diren amortizazioak biderkatuko dira foru lege bidez horretarako ezarritako koefizienteekin.”

Zioak: Baldin eta legegileak gaurkotze koefizienteak, 2014ko Zerga Neurriei buruzko Foru Legearen bitartez, ezartzearen alde egiten badu 2015etik aurrera hasten diren zerga-aldietarako, orain arte urtero egin izan den bezala, erregelamendurako bidalketa bat jaso beharrea –orain arte horixe egiten baitzen– (erregelamendu-bidalketa Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko 11. artikuluan garatuta dago), badirudi logikoa dela, koherentzia hutsez, 27.1.a) artikulua aldatzea, zeren eta bidalketa horrek ez baitu zentzurik. Kontua da moneta bidezko zuzenketa-koefizienteen finkapenari estaldura juridikoa eman behar zaiola foru lege baten bidez, eta ez erregelamendu bidez, ohikoa izan den bezala.

**8. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA****FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Lege proiektuko xedapen gehigarri bakarraren izena aldatzeko zuzenketa. Honako izena izanen du:

“Xedapen gehigarri bakarra. Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 27. artikuluan aipatutako diruaren balio-galera zuzentzeko koefizienteak.”

Zioak: Kontua da Zerga-neurriei buruzko Foru Lege proiektuko akats bat zuzentzea, non 24/1966 Foru Legea aipatzen baita. Agerikoa den bezala, urtea oker dago.

**9. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“2011ko uztailaren 1ean eraturako Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L. sozietate publikoari aplikatzekoak izanen zaizkio Sociedad de Desarrollo de Navarra (SODENA) sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legean jasotako xedapenetatik beren izaerarengatik eta norainokorengatik indarrean daudenak.”

Zioak: Araua egokitzea eta aplikatzea Sodena-  
ren egoera berriari, S.L. bihurtu baita.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek eta Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu dute foru lege proposamen bat, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako; eta eskatu dute presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aipaturiko Foru Lege proposamena.
2. Foru lege proposamen hori presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.
3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta hari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.
4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan.

tan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako**

**ZIOEN AZALPENA**

Irailaren 25eko 17/2014 Foru Legearen bidez ondoko foru legea aldatu zen: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

Aldaketa horren xedea izan zen, zioen azalpean adierazten den bezala, zehaztea Nafarroako Sinboloari buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legearen ze manuren ez-betetzeaz ari den 15 g) artikulua, abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legearena, zeinaren bidez ezartzen baita toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

Arau-aldaketa hori dela-eta, bidezkoa da epea egokitzea, hautetsiei karguan aritzeagatik ordain-

dutakoagatik Nafarroako udalentsako konpentsazio-eskabideak aurkeztekoa, halako moduan non udalek 2014a bukatu baino lehen aurkeztu ahal izan dezaten kasuko eskabidea, baldin eta lehengo araudiaren babesean ez bazuten halakorik aurkeztu 2014ko urtarrilean.

**Artikulu bakarra.** Bigarren lerrokada bat gehituko zaio Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legearen 15 d) artikuluari. Hona testua:

“Eskabidea, ekarpen horrek 2013ko ekitaldian izandako zenbatekoari eta xedeari buruzko ziurtagiriarekin, 2014a bukatu aitzin aurkezten ahalko da.”

**Xedapen gehigarri bakarra.** Aurrekontu-kredituak.

Foru lege hau aplikatetik heldu den gastua ezin baldin bazaio egotzi Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten 2013 eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako funtsari, orduan, Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten 2015eko aurrekontu-ekitaldirako funtsari egotziko zaio gastua.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunean bertan.



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Gipuzkoako Aldundiak Nafarroa Euskal Herriarekin identifikatzen duten afixak erretira ditzan Nafarroako Gobernuak egindako zuzemenei buruzkoa.**

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Gipuzkoako Aldundiak Nafarroa Euskal Herriarekin identifikatzen duten afixak erretira ditzan Nafarroako Gobernuak egindako zuzemenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak

2014ko abenduaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan abenduaren 1ean, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak adierazpen instituzional bat onetsi zuen, zeinaren bidez injerentzia onartezintzat arbuia baitzuen Gipuzkoako Aldundiaren seinalizazioa, Nafarroa Euskal Herriarekin identifikatzen duena, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzuen laster jardun zezan, Foru Komunitatearen aurkako eraso nazionalista berri horren aurrean, eta exiji zezan berehala kentzea Nafarroa eta Euskal Herria identifikatzen dituzten afixak, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzeaz gain.

Hori dela-eta, ahozko galdera hau aurkezten dut:

Nafarroako Gobernuak zer zuzemen eta jarduketa egin ditu Gipuzkoako Aldundiak erretira ditzan Nafarroa eta Euskal Herria identifikatzen dituzten afixak?

Iruñean, 2014ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Galdera, kirol federazioei diru-laguntzak ematea arautzen duen Foru Aginduari buruzkoa.**

### *XABIER LASA GORRAIZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Xabier Lasa Gorraiz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, kirol federazioei diru-laguntzak ematea arautzen duen Foru Aginduari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Xabi Lasa Gorraizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako

Gobernuko Gizarte Politiketako kontseilari Iñigo Alli jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Parlamentu honek Diru-laguntzei buruzko Legea aldatu ostean, eta kontuan hartuta orain dela gutxi txosten juridiko batzuen arabera legearekin bat datorrela Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren urriaren 1eko 311/2009 Foru Agindua, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Kontseilariak ba al du asmorik hemendik gutxira aldatzeko 163/2014 Foru Agindua, martxoaren 26koa, Gizarte Politiketako kontseilariak emana, Nafarroako kirol federazioei 2014an diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onesten dituen, halako moduan non ekidin ahal izanen baitira diru-laguntzak jasotzeko arazoak, zeinek arriskuan jarri baitituzte entitate horien bideragarritasuna nahiz egiten duten jardura?

Iruñean, 2014ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Xabi Lasa Gorraiz

## **Galdera, Taxoareko zelaiak kirol jardueretarako lagatzeari buruzkoa eta jakitekoa aintzat hartuko ote den Nafarroako Errugbi Federazioak zelai horietako bat erabiltzeko egindako eskaera.**

### *TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Taxoareko zelaiak kirol jardueretarako lagatzeari buruzkoa eta jakitekoa aintzat hartuko ote den Nafarroako Errugbi Federazioak zelai horietako bat erabiltzeko egindako eskaera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleónek gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, Gizarte Politiketako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakin izan dugunez, Nafarroako Errugbi Federazioak ez dauka inolako instalazio publikorik Iruñerrian errugbian aritzeko, eta, "Osasuna Legea" onetsi ostean, gutun bat igorri dio Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina andreari, Taxoareko instalazioetako 8 zelaietako bat laga dakion eskatzeko; izan ere, Osasunaren zorra berregituratzeko Foru Legea onetsi ondoren, instalazio horiek ondare publiko izatera igaroko dira.

Haiek diotenez, Iruñean bi errugbi-talde eta 250 errugbi-jokalari baino gehiago daude, eta Federazioak bertan dauka bere egoitza, eta halere Iruñerrian une honetan ez dago errugbian aritzeko inolako instalazio publikorik. Hori dela-eta, Nafarroako errugbi-selekzioek Lekarotzen jokatzeko dituzte beren partidak etxeko talde gisa. Instalazio hori Baztan Errugbi Taldeak kudeatzen du.

Instalazio publikorik ez edukitzea arazo bat da Nafarroako errugbiarentzat, eta hamarkada honetan eragozpen izan da kirol hori garatzeko. Iruñean bi talde daude –Iruña RC eta La Única RT–, 1980ko hamarkadan Larrabideko instalazioetan hasi zirenak jokatzeko. Zelai hori atletismorako ez bestetarako instalazio gisa hasi zen erabiltzen gero; Nafarroako Errugbi Federazioko taldeak Mutiloagoitiko zelai batera igaro ziren, zeina Espainiako Errugbi Federazioak egokitutako zelai publikoa baitzen. Instalazio hori, geroago, NUPen kirol-eremu izatera igaro zen. Halere, unibertsitateak Nafarroako Errugbi Federazioari kobratutako tasa altuen eraginez –unibertsitatea funts publikoen bidez finantzatzen da–, instalazio hori utzi behar izan zuten, aurrena La Única RTk, hurrena Nafarroako Errugbi Federazioak eta, aurtengo denboraldian, Iruña RCK.

Nafarroako Errugbi Federazioko lehendakariak Gobernuako lehendakariari igorritako gutunean adierazten da Iruñerriko instalazioen gastua 30.000 euro ingurukoa dela urtean; hau da, federazioaren aurrekontuaren ehuneko 30. Gutunean

orobat esaten da administrazioak berak eskuordetutako eginkizunak egiten dituela Nafarroako Errugbi Federazioak Kirolari buruzko Foru Legeak agindutakoari jarraikiz; hortaz, federazioak uste du bidezkoa dela zelai publiko bat lagatzeko eskatzea, Nafarroako Errugbi Federazioak bere 30 urteko bizialdian oinarrizko kirolean egindako lana ikusita.

Lege horretako 3.5 artikulua dioenez, "Nafarroako Gobernuak eskubide lehenetsia izan du eskualdatutako finketan kirol, hezkuntza nahiz kultur jarduerak sustatzeko; eskubide hori Osasunarekin adostuta baliatuko du departamentu eskudunak." Eta Osasunak Nafarroako Foru Komunitateko 14 urtetik beheitiko gazteentzako kirol jarduerak ahalbidetzeko konpromisoa hartzen du.

Gauzak horrela, hauxe jakin nahi dugu:

1 Gizarte Politiketako Departamentuak zer asmo du lege horretako 3.5 artikulua xedatutakoa betetzeari dagokionez? Aintzat hartuko al du Nafarroako Errugbi Federazioaren eskaera? Osasunaren egungo instalazioen erabilerari buruzko antzeko eskaera gehiagorik ba al dago? Gobernuaren ustez, gisa horretako eskaera gehiago egon al daiteke?

Iruñean, 2014ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren jarrerari buruzkoa, presoen dispersioari eta beraien eskubideen urraketeki dagokienez.**

### *BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuaren jarrerari buruzkoa, presoen dispersioari eta beraien eskubideen urraketeki dagokienez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaur-

kotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aste honetan bertan, abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatuko da. Tesuinguru honetan, beste urte batez, zenbait gizarte-eragilek aldarrikatzen dute bukatu beharra dagoela presoak beren jaioterritik ehunka kilometrorra egotera behartzen dituen dispersio-politika, hartara beren eskubideak urratzen baitira.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

- Zein da Nafarroako Gobernuaren jarrera dispersioari eta preso nafarren eta haien senitar-tekoen eskubideen urraketeki dagokienez? Ba al du ekimenen bat abiarazteko asmorik, haien eskubideak errespeta daitezen?

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, jakitekoa zer neurri abiaraziko dituen Nafarroako Gobernuak pobrezia energetikoko kasu zehatzen aitzinean.**

### *SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer neurri abiaraziko dituen Nafarroako Gobernuak pobrezia energetikoko kasu zehatzen aitzinean.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak zer neurri abiaraziko ditu pobrezia energetikoko kasu zehatzen aitzinean?

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Lantaldea, parlamentu-taldeek ustelkeriaren aurka borrokatzeko aurkezten dituzten proposamenak lantzekoa eta ustelkeria kasuistika desberdinak prebenitzeko eta politikoki zigortzeko neurri eraginkorrak aztertzekoa.**

*BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezten ondoko lantaldearen barne-funtzionamendurako arauak: "Lantaldea, parlamentu-taldeek ustelkeriaren aurka borrokatzeko aurkezten dituzten proposamenak lantzekoa eta ustelkeria kasuistika desberdinak prebenitzeko eta politikoki zigortzeko neurri eraginkorrak aztertzekoa," zeinak lantaldeak berak onetsi baitzituen 2014ko abenduaren 1ean eginiko bilkuran. Hona testua:

**Lehena.** Lantaldearen xedea da parlamentu-taldeek ustelkeriaren aurka borrokatzeko aurkezten dituzten proposamenak lantzea eta ustelkeria kasuistika desberdinak prebenitzeko eta politikoki zigortzeko neurri eraginkorrak aztertzea, eta horri buruz dagokion txostena egitea.

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio, aurkezten diren boto partikularrekin batera –baldin eta halakorik aurkezten bada–, izan beharreko ondorioak izan ditzan.

**Bigarrena.** Horra lantaldea osatzen duten foru parlamentarien zerrenda:

Carlos García Adanero jauna (UPN)  
Ordezkoa: Sergio Sayas López jauna

Santos Cerdán León jauna (SN)  
Ordezkoa: Juan José Lizarbe Baztán jauna

Bakartxo Ruiz Jaso andrea (Bildu-Nafarroa)  
Ordezkoa: Maiorga Ramírez Erro jauna

Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (Aralar-NaBai)  
Ordezkoa: Txentxo Jiménez Hervás jauna

Ana Beltrán Villalba andrea (PPN)  
Ordezkoa: Amaya Zarranz Errea andrea

Txema Mauleón Echeverría jauna (I-E)  
Ordezkoa: José Miguel Nuin Moreno jauna

**Hirugarrena.** Lantaldeak Santos Cerdán León jauna hautatu du lehendakari, zeina, kasua bada, lantaldeko kiderik zaharrenak ordezkatu ahalko baitu. Lantaldeari laguntzen dion legelaria izanen da lantaldeko idazkaria, eta, kasua bada, haren ordezkari dena.

**Laugarrena.** Lantaldeak boto ponderatuaren sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horretarako, parlamentu-taldeek ordezkariak beren parlamentu-taldeek kideak bezainbat boto edukiko dituzte lan-taldean.

**Bosgarrena.** Lantaldeak laguntza eta lankidetzat eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak lantaldera etor daitezten eskatu ahalko du, edo beharrezkoak diren txostenak egin daitezten. Orobat eskatu ahalko du gaian aditu diren beste batzuk ere etor daitezten.

**Seigarrena.** Lantaldeak lan egiteko plana ezarriko du, eta lantaldearen lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko ditu. Plan hori Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko dio.

**Zazpigarrena.** Lantaldeak agindu zaion lana bukatu arte egingen du lan, eta lan hori 2015eko otsailaren 2an bukatu beharko du.

**Zortzigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Lantaldea, aztertzea eta egiaztatzea nazioko nahiz nazioarteko adopzio-politikan erabili diren eta erabiltzen ari diren dinamikak, bai eta esparru horretako irizpideak eta jarduketak ere, eta adopzioei buruzko lege- nahiz arau-garapenean sakontzea.**

*GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Legebiltzarreko Erregelamenduen 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin lantalde bat sortzeko erabakia, aztertzea eta egiaztatzea nazioko nahiz nazioarteko adopzio-politikan erabili diren eta erabiltzen ari diren dinamikak, bai eta esparru horretako irizpideak eta jarduketak ere, eta adopzioei buruzko lege- nahiz arau-garapenean sakontzea. Erabakia Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak onetsi zuen, 2014ko abenduaren 4an egindako bilkuran. Hona testua:

“1. Gizarte Politiketako Batzordean lantalde bat eratzen da, aztertzea eta egiaztatzea nazioko nahiz nazioarteko adopzio-politikan erabili diren eta erabiltzen ari diren dinamikak, bai eta esparru horretako irizpideak eta jarduketak ere, eta adopzioei buruzko lege- nahiz arau-garapenean sakontzea.

2. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, aipatu lantaldearen osaerari eta eratzeari buruz behar dena xeda dezan.”

Iruñean, 2014ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Lantaldea, aztertzea eta egiaztatzea nazioko nahiz nazioarteko adopzio-politikan erabili diren eta erabiltzen ari diren dinamikak, bai eta esparru horretako irizpideak eta jarduketak ere, eta adopzioei buruzko lege- nahiz arau-garapenean sakontzea.**

*OSAERARI ETA ERATZEARI BURUZKO ARAUAK*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Gizarte Politiketako Batzordeak, 2014ko abenduaren 4an, Erregelamenduko 55.2 artikuluan xedatuarekin bat, erabaki zuen lantalde bat eratzeari, aztertzea eta egiaztatzea nazioko nahiz nazioarteko adopzio-politikan erabili diren eta erabiltzen ari diren dinamikak, bai eta esparru horretako irizpideak eta jarduketak ere, eta adopzioei buruzko lege- nahiz arau-garapenean sakontzea, eta Legebiltzarreko Mahaiari eskatu zion xedatu beharrezkoa xeda zezala aipatu lantaldearen osaerari eta eraketari buruz.

Lantaldea eratu eta lanean hasi ahal izan dadin, ondokoa ERABAKI DA:

1. Epe bat ematea, 2014ko abenduaren 11ko 12:00ak bitartekoa, parlamentu-talde bakoitzak aipatu lantalderako ordezkaria izenda dezan,

Gizarte Politiketako Batzordeko kideen artean, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez. Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko parlamentu-taldeko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari haren ordezkari jardunen dena.

2. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak erabakiko du lantaldea zein egunetan eratu eta lanean hasiko den.

3. Azterlana egiteko epea bukatuko da lantaldea eratu eta bi hilabetera.

Behin txostena eginda, Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio, eta hark Batzordeko kideei helaraziko die, txostena eztabaidatu eta bozkatuko den bilkuraren deialdiarekin batera.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Ezgaitasunaren alorreko Politika Integralei buruzko Batzorde Berezia.**

### **BATZORDEA SORTZEA ETA BERE FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Ezgaitasunaren alorreko Politika Integralei buruzko Batzorde Berezia sortzea.

**2.** Batzorde horren eraketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko honako arau hauek onestea, Eledunen Batzarrarekin adostuta:

“Lehenengoa.- Ezgaitasunaren alorreko Politika Integralei buruzko Batzordea sortzen da, batzorde berezi bezala. Batzorde horrek berariazko organo gisa aztertuko ditu ezgaitasunaren alorreko politika integralekin zerikusi zuzena duten ekimen eta gaiak, eta foro bat izanen da ikerketarako, eztabaidarako eta proposamenak egiteko, ezgaitasuna duten pertsonen integrazioaren alde.

Bigarrena.- Batzordeak aztertuko ditu Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ezartzen dizkion gaiak.

Hirugarrena. Batzordea parlamentu-talde bakoitzeko bi kidek osatuko dute, eta erabaki guztiak boto ponderatuaren sistemaren bitartez hartuko ditu, batzordeburuaren hautaketa barne. Eledun bakoitzak, bere taldea zenbat foro parlamentarik osatzen duten, horrenbeste boto edukiko ditu batzordean.

Laugarrena.- Batzordea eratzeko bilkura Legebiltzarreko Mahaiak erabakitzen duen egunean egingen da, parlamentu-taldeek Batzordean izanen dituzten ordezkariak hautatu ondoren.

Bosgarrena.- Batzordea eratzeko bilkuran batzordeburua hautatuko da; hura ez badago, parlamentu-talde bereko batzordekide den beste foro parlamentaria arituko da haren ordeiz. Batzordeari laguntzen dion legelaria izanen da batzordeko idazkari.

Seigarrena.- Batzordeak txosten eta irizpen gisara emanen ditu bere erabakiak. Horiek Mahaira igorriko zaizkio, eta Mahaiak erabakiko du, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, zer prozedurari jarraikiz tramitatuko diren erabaki horiek.

Zazpigarrena.- Batzordeak bere eginkizunak beteko ditu harik eta Mahaiak Batzordea desegitea erabaki arte.

Zortzigarrena.- Batzordearen antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, arau hauetan aurreikusi ez den guztian aplikatuko da Legebiltzarreko Erregelamenduak batzorde berezietarako oro har xedatzen duena, eta halakorik ezean, batzorde arruntetarako xedatzen duena.”

**3.** Parlamentu-taldeek Legebiltzarreko Mahairi, abenduaren 15eko 12:00ak baino lehen, jakinaraziko diote zein diren haiek batzordean izanen dituzten ordezkariak.

**4.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta parlamentu-talde- en eledunei jakinaraztea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

